

Tolosako udalak hondakin bilketa sistema berria aurkeztu berritan Tolosa Zero Zaborrek lehen balorazio azkarra egin nahi du:

- 1.- Sistema bat aukeratzea garrantzitsua da, bi urtetako eztabaida amaitutzat ematen dugulako
- 2.- Ontzat ematen dugu helburuak %60a 2014an eta %85a 2015ean izaten jarraitzea, konpromiso argia adierazten baitu hondakinen kudeaketa egokiarekin eta lotura baitu zero zabor bidearekin
- 3.- Garrantzitsua eta ona da edukiontzi berdea kentzea eta hondakinak nahasian botatzea galaraztea
- 4.- Are garrantzitsuagoa sistemak hondakinak gaika bereizteko derrigortasuna agertzea eta bermatzea, nahiz eta berme hau ematen den hala ez jakiteko informazioa falta zaigun
- 5.- Oso kritiko agertzen gara hondakinen mahaiko partaideekin, egin den lan guztiari muzin egin diotelako eta bakoitzak bere bide propioa egin dutelako, partaidetza ezerezean utziz.
- 6.- Bilketa sistema oso gaineratik azaldu zaigu, xehetasunik gabe, eta datu horiekin ezinezkoa zaigu balorazio sakonagoa egitea. Eman zaigun informazioarekin ondorio bat atera dezakegu, ezarpena egiten den moduaren arabera sistema egokia hala erabat desegokia izan daiteke. Txosten teknikoa eskatu nahi diogu udalari agerpen honen bidez eta berari zuzenean eginiko eskaerarekin, eta txosten tekniko hori baloratu ostean egingo dugu balorazio sakonagoa.

Aste Santuen ostean agerraldi bat egingo dugu balorazio zehatzagoa egiteko.

Orduan ikusiko garelakoan

Tolosa Zero Zabor